

2016. URTEAN ESKORIATZAN GARATUKO DIREN KULTUR PROGRAMA ETA JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Eskoriatzako Udalak 2016rako onartu dituen udal aurrekontuetan kultur programak eta jarduerak finantzatzeko diru laguntzak eta laguntzak ematea aurreikusten du, eta horregatik, lehia libreko deialdi publiko hau egiten du.

1. HELBURUA.

Oinarri hauen helburu da 2016rako Eskoriatzan egingo diren kultur programak eta jarduerak antolatzeko norgehiagoka erregimenean emango diren diru laguntzak arautzea.

Programa edota jarduera horiek Udaleko Kultura arloko helburuekin bat etorri beharko dira, hain zuzen ere, honako hauekin:

- 1.- Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.
- 2.- Herritarrei oro har zuzendutako ondorengo diziplinetako sorkuntzara, ekoizpena eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.
- 3.- Gazteen parte hartzea lagundu, zabaldu eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.
- 4.- Euskal historiaren eta kulturaren -bereziki Eskoriatzakoarenak- balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzea.
- 5.- Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzea.

2.- DIRU LAGUNTZARIK JASOKO EZ DUTEN PROGRAMA ETA JARDUERAK.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira ondorengo jarduerak:

- a) Beste udal deialdi bateko helburu diren edo izan daitezkeenak.
- b) Bakea, elkartasuna, genero berdintasuna, ingurumenarekiko errespetua, kulturartekotasuna... bezalako balore unibertsalen aurkakoak izan daitezkeenak.
- c) Jarduera itxiak edo eskaera egin duen taldeak berak bakarrik gozatzekoak.
- d) Jarduera eremu sektoriala duten edo herri mailan garrantzirik ez duten jarduerak.
- e) Irabazi asmoa dutenak.



3. ONURADUNAK.

Deialdi honen helburu diren diru laguntzak eskatu ahal izango ditu ondorengo baldintzak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridikok:

3.1.- Erakundeak.

a) Egoitza Eskoriatzan izatea, eta bere jarduera, nagusiki, herri honetan garatzea. Salbuespen gisa, egoitza Eskoriatzatik kanpo dutenak parte hartu ahal izango dute Kultura batzordearen iritziz kultur izaera ezagun eta nabarmeneko lanak egin eta diru laguntzaren helburu den jarduera Eskoriatzan egiten baldin badute.

b) Agiri bidez egiaztatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela diru laguntza eskatzen duten egunean.

3.2.- Pertsona fisikoak: adinez nagusiak eta Eskoriatzan erroldatutakoak izan beharko dira.

Inolaz ere ezingo dute Eskoriatzako Udalaren diru laguntzarik jaso balore unibertsalen aurkako helburuak, onarpen eta funtzionamendu sistema edo jarduera dituzten pertsona edo erakundeek.

4.- ESKAERAK.

Erakunde, elkarte edo pertsona fisiko bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu beharko du, eta bertan sartu 2016. urtean egin nahi dituen programak edo jarduerak.

Diru laguntza eskatzeko dagokion inprimakia bete beharko da (1 eranskina) eta diru laguntza eskatzeko ahalmena duen pertsonak sinatu ondoren, aurkeztu. Eskaera inprimakiarekin batera ondorengo dokumentuak ere aurkeztu beharko dira:

a.1) Pertsona fisikoek, NANaren fotokopia.

a.2) Elkarateek elkarte erroldan irabazi asmorik gabeko elkarte bezala inskribatuta dagoela ziurtatzeko dokumentua eta elkaratearen estatutuak.

Elkaratea ez baldin badago erroldan inskribatuta, bere kurrikuluma aurkeztu beharko du: helburuak, giza baliabideak eta baliabide materialak, egoitza eta gaur egunera arte egindako jarduerak. Elkaratearen arduradunaren edo lehendakariaren NANaren fotokopia bat ere aurkeztu beharko du.

Dena den, eskatutako diru laguntza 3.000 eurokoa edo handiagoa izanez gero, derrigorrezkoa izango da elkaratea elkarateen erroldan inskribatuta egotea diru kopuru hori eman ahal izateko.



b) Diruz laguntzea eskatzen den programa edo jarduera azaltzeko txostena. Bertan, beharrezko izango da ondorengo puntu guztiak eta bakoitza jasotzea behar bezala zenbakituta eta hemen ezarritako hurrenkeran:

- 1.- Diruz laguntzea eskatutako programaren edo jardueraren izena.
- 2.- Programa edo jardueraren deskribapena, unean-uneko jarduera zehatza den edo denboran zehar jarraipena izan duen edo izan behar duen zehaztuz. Azken kasu horretan, deialdiaren helburu denak aurreko urteetan egindako jarduerari jarraipena nola ematen dien labur deskribatu beharko da.
- 3.- Jarduera egingo den data zehatzak eta jardueraren iraupena.
- 4.- Jarduera egiteko dituen baliabide tekniko eta materialak eta giza baliabideak.
- 5.- Kalkulatzeko den parte hartzea.
- 6.- Jarduera zabaltzeko erabilitako baliabideak.
- 7.- Jardueraren aurrekontu zehatza, gastuak eta diru sarrerak xehetasunez banakatuta. Diru sarreretan zehaztu behar da eskatzen den diru laguntzaren zenbatekoa (gehienez ere jardueraren kostu errealaren %80a). Era berean, antolatzailearen ekarpena zehaztu beharko da, gutxienez %20a izan beharko dena.

c) Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunekiko eta Eskoriatzako Udalarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izateari buruzko ziurtagiriari dagokionez, 3.000 euro baino diru laguntza txikiagoa eskatzen dutenek ziurtagiriaren ordezkariaren edo erakundearen ordezkariaren zinpeko adierazpena aurkeztu ahal izango dute zerga betebeharrak egunean dituztela adierazteko (II. eranskina).

Gizarte Segurantzaren ziurtagiriari dagokionez, erakunde horri ordaintzea eskatzen duen inolako lan harremanik ez badago, egunean dagoela adierazteko ziurtagiriaren ordezkariaren zinpeko aitorpena aurkeztu ahal izango da hori adierazteko (ez dagoela lan harremanik, eta beraz, gizarte segurantzari ordaintzeko bete beharrik) (III. eranskina).

d) Beste erakunde edo organismo batzuei egindako diru laguntza eskaerak edo horiek dagoeneko emandakoak jasotzen dituen zinpeko aitorpena (IV. eranskina).

e) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez egotearen zinpeko adierazpena (V. eranskina).

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

Ez da onartuko beste dokumentu motarik.



Eskatutako dokumenturen bat lehenagotik aurkeztuta badago Eskoriatzako Udalean, eskatzaileak ez du berriz aurkeztu beharko baldin eta bost urte edo gehiago ez baldin badira igaro aurkeztu zuenetik. Horretarako, eskaeran adierazi beharko du zein egunetan eta zein organo edo departamenturi aurkeztu zitzaion dokumentua.

Hala ere, dokumentu horiek lortzea ezinezkoa balitz, organo eskudunak horiek aurkezteko eska dezake erabaki proposamena egin baino lehen.

5. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epe amaiera.

Eskaerak astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era, aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean, edo telematikoki HERRITARREN ATARIAN.

6. ESKAERAK TRAMITATZEKO ARDURA DUEN ADMINISTRAZIO UNITATEA.

Eskaerak Kultura administrazio unitateak tramitatuko ditu.

7.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK ETA BAREMOAK.

Diru laguntza eskaerak ondorengo irizpide eta baremoen arabera baloratuko dira:

a) Proposatutako jardueraren edo programaren ezaugarriak: 60 puntu.

- a.1) Aurkeztutako programaren edo jardueraren kalitatea eta zehaztasuna: 20 puntu
- a.2) Proiektuaren garrantzia Eskoriatzako kultura testuinguruan. 10 puntu
- a.3) Kultur nortasun propioa indartzea: 10 puntu
- a.4) Jardueraren interes orokorra, herritar askori eragitearen edo herritar asko erakartzearen zentzuan: 10 puntu
- a.5) Programa edo jardueraren originaltasuna eta egokiera Udalaren babesarekin egiten diren antzeko beste jarduera batzuekiko, edo bere interes berezia, herriko kultur eskaintzan hutsunea betetzearen zentzuan: 10 puntu.



b) Programaren edo jardueraren ekarpena euskararen normalizazio prozesura: 20 puntu

b.1) Osorik euskaraz egindako jarduera edo programak: 10 puntu.

b.2) Euskararen erabilera sustatzeko egindako jarduera edo programak: 10 puntu

c) Erakunde eskatzailearen ezaugarriak: 5 puntu.

c.1) Erakunde eskatzailearen jarraipena eta egonkortasuna: 3 puntu.

c.2) Udalaren ekimenetan ematen duen laguntza eta parte hartzea: 2 puntu.

d) Erakundearen finantza baliabideak: bere errekurtsoen, beste diru laguntza batzuen eta aurkeztutako gastu aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna: 15 puntu

d.1) Erakunde eskatzaileak kultur proiektuari egindako ekarpen ekonomikoa, bai bere baliabideekin bai beste finantza bide batzuk lortuta: 3 puntu

d.2) Gastua Eskoriatzan egitea: 3 puntu.

d.3) Egindako jardueraren kostuak: 9 puntu

8.- DIRU LAGUNTZA KALKULATZEA.

Aurreko irizpideak kontuan izanik, diru laguntza emateko proposamenean sartuko dira 50 puntuko edo gehiagoko balorazioa lortzen duten programa edo jarduerak. Ez dira kontuan hartuko gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten programa edo jarduerak.

Irizpide horien arabera, eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten proiektu edo jarduerekin, diru laguntzak banatzeko sistema bat aplikatuko da eskatzaile bakoitzak lortutako puntuen arabera. Horretarako, diru laguntza modalitate honetarako aurreikusitako kopurua onartutako eskaeren puntu guztien batuketaren artean banatuko da. Ateratako emaitzak puntu baten balioa izango du, eta hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntu kopuruengatik biderkatuz gero, diru laguntzaren zenbatekoa emango digu.

Diru laguntzak ezingo du gainditu jardueraren % 50aren kostu garbia (gastuak - sarrerak, egongo balira), eta edozein modutan, diru laguntza ez da izango 5.000 euro baino handiagoa.

Proiektu guztien finantziazio propioaren maila gutxienez %20koa izan beharko da. Finantziazio propiotzat ulertu behar da erakundeak hainbat iturri publiko edo pribatutik lortzea aurreikusten duen finantziazioa, Udalari eskatu zaion ekarpena kenduta.

Diru laguntza portzentajea %30era arte handitu ahal izango zaie batzorde informatzaileak kulturaren sustapenerako eta hedapenerako aparteko ekarpenentzat edo eragin berezitzat jotako programa edo jarduerari, betiere, egiaztatzen baldin bada programa edo jarduera horiek, beraien



edo erakunde eskatzailearen ezaugarriengatik, ez dutela, zuzenean edo zeharka, aldeko eragin ekonomikorik erakunde eskatzailearentzat.

9. DIRUZ LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEEN GASTU KONTZEPTUAK.

1. Diruz lagungarritzat joko dira programaren edo jardueraren izaerari erantzuten dioten 2016an egindako gastuak.

2. Ez dira diruz lagungarritzat onartuko ondorengo gastuak:

2.a) Taldearen, elkartearen edo erakundearen barruko administrazio eta antolaketa gastuak.

2.b) Gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legeko balioaz faktura edo egiaztagiri jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte.

2.c) Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.

10. AURREKONTUA.

Programa honen bidez 21.400 € banatuko dira diru laguntzetan, aurrekontuko 0400.481.334.0001 partidaren kontura finantzatuko direnak.

Zenbateko hori handitu ahal izango da, Udal Aurrekontu Exekuzio Araudian aurreikusitakoaren arabera.

11. PROZEDURA ETA ERABAKIA.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, kultura teknikariak aztertuko ditu eskaerak, eta dokumenturen bat faltako balitz, 10 eguneko epea emango da horiek aurkezteko.

Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, diru laguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Arlo bakoitzeko teknikariak txostena eginda, Kultura, Euskara eta Kirolak batzorde informatzailean aztertuko dira.

Erabaki proposamena egin aurretik beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du Udalak batzorde informatzailearen bidez.

Kultura, Euskara eta Kirolak batzorde informatzaileak diru laguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari, dagokion erabakia har dezan.

Erabakia ahalik eta epe motzenez hartuko da, gehienez ere eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabetera. Onartu ez diren eskaerak ere epe horretan jakinaraziko dira.



12. ONURADUNAREN BETE BEHARRAK.

Onuradunak honako bete behar hauek izango ditu:

- a) Jarduera egitea edota diru laguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.
- b) Eskoriatzako Udalean egiaztatzea bete direla diru laguntza emateko eta erabiltzeko baldintzak, jarduerak eta helburuak.
- c) Udalak derrigorrez egin beharreko egiaztatze jarduerak ez oztopatzea.
- d) Eskoriatzako Udalari jakinaraztea diruz laguntzen den jarduerarako elkarteak jasotako beste edozein diru laguntza.

Jakinarazpen hori jasotako beste edozein diru laguntzaren berri izandakoan egin beharko da, eta betiere, Udaletik jasotako diruaren erabilpena justifikatu aurretik.

- e) Jasotako diru laguntza zertan erabili den justifikatzeko dokumentuak gutxienez bost urtez gordetzea.
- f) Behin Udalak jakinarazita diru laguntza ematen dela, informazioa ematerakoan, publizitatea edo propaganda egiterakoan zein diruz lagundutako jarduerak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

- Eskoriatzako Udalak lagundutakoa dela jaso beharko da.
- Irudi eta hizkera ez sexista erabiliko da.
- Euskara bakarrik erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.
- 16 urtetik azpikoei zuzendutako mezu guztiak (idazki, hitzaldi, eta abar), salbuespenak salbuespen, euskara hutsean izango dira.
- Edozein modutan ere, euskarazko testuen zuzentasuna bermatzeko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

- g) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea.

- h) Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.

Pertsona edo erakunde eskatzailea joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera nomaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitekeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.



13. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA.

Emandako diru laguntza bi epetan ordainduko da (lehenengo, %60a, eta gero, %40a).

%60a hilabeteko epean ordainduko da Alkateak diru laguntza ematea erabakitzen duen egunetik kontatzen hasita.

Diru laguntzaren beste zatia jasotzeko (%40a) ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira, telematikoki edo Eskoriatzako Udaleko Erregistro Orokorrean, 2016ko abenduaren 15eko 13:30ak baino lehen:

- ❖ Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren memoria.
- ❖ Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- ❖ Egindako gastuen legezko balioa duten fakturen edo justifikanteen originalak edo fotokopia konpultsatuak.
- ❖ Emaizta ekonomikoaren memoria eta jardueraren benetako balantze xehatua, gastuak eta diru sarrerak xehetasunez banakatuta. Diru sarreretan jaso egin beharko da emandako diru laguntza zenbatekoa izan den.

Salbuespen gisa, ordainketa epe bakarrean egin ahal izango da diruz lagundutako jarduerara eginda baldin badago diru laguntza ematerakoan eta eskatutako dokumentazioa aurkezten bada.

Elkarteak, justifikatutako arrazoirik gabe, ez baditu osorik edo zati batean betetzen programatutako jarduerak edo oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, kobratzeke duen diru laguntzaren zatia ez ordaintzea erabaki dezake Udalak, eta baita kobratutako gutzia edo zati bat itzultzera derrigortzea ere.

Erabaki hori hartu aurretik entzunaldia eskainiko zaio interesdunari.

14. BATEGARRITASUNA BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUEKIN.

Udalak emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, diru laguntza ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

15. DIRU LAGUNTZA ALDATZEA.



Diru laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen baldin badira edo helburu berarekin beste erakunde batzuk emandako diru laguntzarik jasoz gero, horiek diru laguntza emateko erabakia aldatzea ekar dezakete.

16. DIRU LAGUNTZA BERTAN BEHERA UZTEA EDO BALIOGABETZEA.

Diru laguntza berraztertzeko eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da diru laguntza jaso izana eskatutako baldintzak bete gabe.

17. INTERPRETATZEA.

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Kultura, Euskara eta Kiroletako batzordeburuak erabakiko ditu.

18. ARAUDI OSAGARRIA.

Oinarri hauetan berariaz ezarrita ez dagoenetarako, estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoa zein diru laguntza arloan indarrean dagoen gainerako legedia aplikatuko da.